NAFARROA, OROTAN LAGUN
NAVARRA + VOLUNTARIA

# NAFARROAKO BOLUNTARIOTZAREN III PLANA 2024-2027

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030



# aurkibidea


**1. SARRERA: BOLUNTARIOTZAREN ESPARRU ESTRATEGIKOA ETA ESPARRU NORMATIBOA NAFARROAN** **4**
1.1. Boluntariotzari buruzko Nafarroako Legea 6
1.2. Nafarroako Partaidetza Demokratikoari buruzko Legea 6
1.3. Nafarroako Boluntariotzaren Estrategia 7
1.4. Boluntariotzaren II. Planaren balantzea 8
1.5. Boluntariotzaren Planaren beste erreferentzia estrategiko batzuk 9

**2. BOLUNTARIOTZAREN EGOERA NAFARROAN** **10**
2.1. Nafarroako Boluntariotzari buruzko 2. azterlanaren ondorioak 12
2.2. Beste azterlan tematiko batzuk 12
2.3. AMIA matrizea 13
2.4. Arazoen zuhaitza 14

**3. BOLUNTARIOTZAREN III. PLANA EGITEKO METODOLOGIA** **16**
3.1. Garapen metodologikoa 18
3.2. Partaidetza prozesua 18

**4. ESTRATEGIAREN HEDAPENA: III. EKINTZA PLANA** **22**
4.1. Boluntariotzaren III. Planaren egitura 24
4.2. Misioa, ikuspena eta balioak 24
4.3. Helburu estrategikoak: jarduketa ardatzak 25
4.4. Jarduketa ildoak 26
4.5. Ekintzen hedapena 27
4.6. Ekintza fitxak 30
4.7. Genero ikuspegia txertatzea 56
4.8. Esparru normatibo berria 61

**5. BOLUNTARIOTZAREN III. PLANAREN GOBERNANTZA** **62**
5.1. Funtsezko eragileak eta gobernantza organoak 64
5.2. Jarraipen eta ebaluazio esparrua 65

**6. KRONOGRAMA** **68**

**7. AURREKONTUA** **72**

# 1 SARRERA: BOLUNTARIOTZAREN ESPARRU ESTRATEGIKOA ETA ESPARRU NORMATIBOA NAFARROAN

Hurrengo orrialdeetan aurkezten den **Nafarroako Boluntariotzaren III. Planak** jarraipena ematen die aurreko bi planei, **Nafarroa, Orotan Lagun estrategiaren** esparruan. Planek aurrerapen garrantzitsuak ekarri dituzte, baita irakaspenak ere, dokumentu estrategiko honetarako abiapuntu izan direnak.

III. Planean proposatzen diren jardunen irismena eta zentzua uler dadin, lehenik eta behin, dagokion **testuinguru estrategikoa, normatiboa eta kontzeptuala** hartu behar da kontuan, boluntariotzaren kontzeptutik bertatik hasita.



## 1.1. Boluntariotzari buruzko Nafarroako Legea

2/1998 oru Legean, boluntariotza honela zehazten da: askatasunez eta altruismoz, gizakien arteko elkartasuna xede izanik, pertsonei edo komunitateari zerbitzuak emateko, irabazteko asmorik gabeko entitateetan antolatzen diren pertsonen jokabide eta ekintzak. Halaber, kontzeptutik at daude edozein lan harremanen eta eginbehar pertsonal edo juridikoren ondorioz, famili zioengatik edo adiskidetasunagatik ematen diren jarduerak oro, baita ordainduriko lanaren ordezkoak direnak ere.

Boluntariotza garrantzi handiko tresna da gure gizartean partaidetza soziala eta demokratikoa sustatzeko eta indartzeko, honelako balioak bultzatzen baititu: askatasuna, gizartearekin konpromisoa hartzeko aukera pertsonal gisa; elkartasuna, beste pertsona edo taldeekin; parte hartzea, komunitateak dituen arduretan esku hartze aktibo eta zuzena izateko printzipio demokratiko gisa; zerbitzuaren doakotasuna, inongo etekinik bilatu gabe; autonomia, botere publikoetatik; eta ardura, premia sozialei erantzuteko eta laguntza denboran zehar eusteko.

**Nafarroako Boluntariotzari buruzko 1998ko Legeak definitzen duenez, boluntarioen ekintzak islatzen du guztion onura lortzeko ahalegin kolektibo, solidario eta altruista, herritarren parte hartze aktibo, libre, solidario, altruista eta arduratsuaren bitartez.**

Lege hori erreferentziazko esparru normatiboa da, eta kontuan hartu behar da Plan honen espiritua eta helburu nagusiak zehazterakoan.

Hala ere, esparru normatibo hori eguneratu beharra dago: Nafarroako gizartea nabarmen aldatu da azken hiru hamarkadetan, boluntariotzaren fenomenoak ere aldaketa esanguratsuak izan ditu... eta, ondorioz, beharrezkoa da araua errealitate berrira egokitzea.

Gero azalduko den bezala, III. Plan honetan proposatzen den ekintza bat –izaera berezia du, eta, beraz, beste modu batera heldu zaio– esparru normatiboaren berrikuspena da, eta lehentasunez landuko da, 2024an bertan.

## 1.2. Nafarroako Partaidetza Demokratikoari buruzko Legea

Nafarroako Partaidetza Demokratikoari buruzko 12/2019 Foru Legearen helburua da herritarrek Nafarroako Foru Komunitateko afera publikoetan parte hartzeko duten eskubidearen erabilera arautu eta bermatzea; orobat, Nafarroako toki entitateetan ere sustatu nahi du partaidetza. Lege horren xedea da esparru normatibo bat eraikitzea eredu demokratiko irekiagoa, integratzaileagoa eta herritarren sostengua lortzeko askoz kapazagoa finkatzeko.

Helburu horretara iristeko, legeak zenbait neurri ezartzen ditu Nafarroako jendartean herritarren parte hartzea sustatzeko eta horri buruz sentsibilizatzeko, parte hartzeko kanal eta mekanismoak bultzatuz eta indartuz. Horien bidez kontzientziatu nahi dira bai administrazio publikoak, bereziki tokikoak, bai Nafarroako herritar guztiak.

Boluntarioen ekintzak garrantzi handia du herritarren parte hartze sozialean. Bestetik, helburu batzuk legearen berberak dira, hala nola herritarrek kontzientzia hartzea eragin handia dutela politikan, kulturan, ekonomian eta gizartean, baita kultura parte hartzaileago eta gogoetatsuago baten garapenean ere, gizarte zibil egituratuago baten alde. Horregatik, garrantzitsua da sinergiak bermatzea boluntariotzaren eta herritarrek parte hartzeko dauden gainerako espazio eta moduen artean.

Bestalde, azpimarratu behar da herritarren parte hartzearen printzipioetako bat genero berdintasuna izan behar dela, eta garrantzitsua dela printzipio hori plan osoan zeharka txertatzea.

## 1.3. Nafarroako Boluntariotzaren Estrategia

Nafarroako Boluntariotzaren Estrategiak, 2018az geroztik Nafarroa, Orotan Lagun izena du, eta helburu du Nafarroako Foru Komunitatean boluntariotzaren garapena eta finkapena sustatzea, boluntariotza ezagutzea, aitortzea, koordinatzea eta indartzea aktiboki bultzatuz.

Estrategia prestatu zen esparru malgu bat eskaintzeko, jarduteko jarraibide orokorrekin eta gauzatzeko epe zehatzik gabe; aldian behin berrikusi behar da, eta ekintza planen bidez (boluntariotzaren planen bidez) inplementatzen da. Esparru estrategiko horri esker Nafarroako Gobernuak modu eraginkor eta iraunkorrean sendotzen du bere erantzukizuna boluntariotzari eusteko eta hura sustatzeko.

Praktikan, boluntariotzaren planen inplementazioa autonomoa da Estrategiaren planteamendu orokorretatik, baina Estrategiak funtsezko erreferentzia ematen du honako hauek ulertzeko:

- Nafarroako boluntariotzaren egoera orokorra; izan ere, oso diagnostiko zehatza eta egituratua du, gerora eguneratu dena azterlan orokor eta tematikoekin.
- Azterketen ondorioz planteatutako helburu estrategikoak –jarduketa ardatz gisa zehaztuak– boluntariotzaren bi planetan mantendu dira, formazko aldaketa txiki batzuekin, eta Nafarroako Boluntariotzaren III. Plan honetan ere jasotzen dira.
- Kudeaketa formulen eta horretan inplikatutako eragileen proposamena, gaur egun ere mantentzen dena.

Navarra + Voluntaria / Nafarroa, Orotan Lagun ekimenaren helburua Nafarroako Foru Komunitatean boluntariotzaren garapena eta sendotzea sustatzea da, boluntariotzaren ezagutza, aintzatespena, koordinazioa eta indartzea aktiboki sustatuz.



Nafarroako boluntariotza estrategiaren helburua Nafarroan boluntariotzaren garapena eta sendotzea sustatzea da.

## 1.4. Boluntariotzaren II. Planaren balantzea

Boluntariotzaren III. Plana egitearekin batera, Nafarroako Boluntariotzaren II. Planaren Ebaluazioa egin da. Ebaluazio horren ondorioetatik ateratako ikaskuntzak kontuan hartu dira III. Plan honetan, talde kudeatzailearekin eta partaidetza saioetara joan diren eragileekin batera egindako hausnarketetatik abiatuta.

Jarraian, ondorio eta ikaskuntza horietako batzuk jasotzen dira, labur-labur.



Boluntariotzaren III. Plana Nazio Batuen Erakundeak Nafarroan dituen Garapen Iraunkorreko helburuak lortzeari lotuta dago.

- II. Planaren formulak, kanalak eta kudeatzaileak positiboki baloratzen dira, eta bereziki nabarmentzen da Nafarroa, Orotan Lagun estrategia; horregatik sendotu behar da baliabide hori.

- Mekanismoak jarri dira boluntariotzako entitateen parte hartzea bermatzeko (adibidez, Nafarroako Boluntariotzaren Kontseilua, entitateen ordezkaritza baitu haren osaeran) planaren ibilbidearen hainbat puntutan, diseinutik hasi eta inplementaziora arte. Faktore positibo horren kontrapuntua da partaidetzaren irismen mugatua: eragile guztiek ez dute behar bezainbeste parte hartu.

- Eragileek ez dute sakon ezagutzen II. Plana. Kausa potentzialen artean, honako hauek identifikatu dira: dokumentu estrategikoaren hedapen eskasa edo ez-eraginkorra, dokumentua ulertzeko zailtasuna, eta eragile askoren parte hartze txikia (aurreko puntuan aipatua). Nolanahi ere, indartu beharreko faktorea da.

- Gauzatzeari dagokionez, aurreikusitako 29 ekintzetatik 24 amaitu dira (guztien% 83). Beste 4 ekintza partzialki gauzatu dira, hau da, hasi eta hein batean garatu dira, baina ez dira aurreikusitako baldintzetan amaitu. Ekintza bakarra geratu da hasi gabe. Oro har zifra positiboak izan arren, gauzatutako ekintza batzuen garapen maila ikusirik, beharrezkotzat jo da Planaren indarraldia proposatutako ekintza kopurura modu errealistagoan egokitzea; horregatik, lau urteko Plan bat proposatu da, eta ez bi urtekoa.

- Emaitzei dagokienez, aurrerapen nabarmenak egin dira zenbait eremutan, baina ez dira helburu guztiak lortu, nolabait problematika batzuen egiturazko izaeragatik. Horrek ez du esan nahi neurriek eraginkorrak ez direnik, baina jarduketa ildo horietan sakondu behar da aldaketak hauteman ahal izateko. Horregatik ere luzeagoa da Planaren indarraldia.

- Lanaren egitura formalari dagokionez, ikusi da maila gehiegi dituela (helburu estrategikoak, helburu orokorrak, ildoak, jomugak, ekintzak...), eta horren ondorioz barne koherentzia txikiagoa dela dirudi. Horrek zailtzen du dokumentua bere osotasunean ulertzea eta Planak arrakasta lortu duen ala ez jakitea, hots, eraginkorra izan den (helburuen lorpena) eta abiapuntuko egoera hobetu den (emaitzak/eragina); beraz, gomendatzen da egitura sinplifikatzea eta zehaztea.



## 1.5. Boluntariotzaren Planaren beste erreferentzia estrategiko batzuk

### Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda

Nafarroako Gobernua atxikirik dago NBEk onetsitako Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari. Agendaren helburua da bide unibertsal bat finkatzea pobreziari amaiera emateko, desberdintasunaren eta bidegabekeriaren aurka borrokatzeko eta klima aldaketari aurre egiteko. Helburu horrekin garapen jasangarrirako 17 helburu (GJH) finkatu ziren, 2030erako bete beharreko 169 jomugarekin, eta adierazle sistema bat zehaztu zen jarraipena egiteko.

Hori dela eta, funtsezkoa da Nafarroa, Orotan Lagun estrategia eta Boluntariotzaren III. Plana bideratzea agenda horrek ezarritako garapen jasangarriko helburuetara.

### Espainiako Gobernuaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (SEEP)

SEEPak estrategia finkatzen du Europako Next Generation EU funtsak Espainian erabiltzeko. Tresna ibilbide orri bat da funts horiekin zer erreforma eta inbertsio egin behar diren finkatzeko. Hauek dira helburuak:

- Jarduera eta enplegu sorrera bultzatzea, pandemiaren eraginari epe laburrean aurre egiteko.
- Egiturazko eraldaketa prozesua babestea, epe ertainean hazkunde potentziala handitzeko.
- Erresilientzia indartzea epe luzera, garapen jasangarriago eta inklusiboago baterantz aurrera eginez.

Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU

Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

### Nafarroako Gobernu Irekiaren Plana

Gob abierto / irekia

Boluntariotzaren III. Plana bat dator Gobernu Irekiaren Planarekin, bien helburua baita herritarrek gai publikoetan aktiboki parte hartzea. 2021-2023 aldirako Gobernu Irekiaren Planaren xedea da Nafarroako Gobernu Irekia osatzen duten elementu guztiak modu integralean garatzea; elementu horiek dira, zehazki, herritarren parte hartzea, gardentasuna, datu irekiak, kontu ematea eta integritatea. Gobernu Irekiaren Plan berria prestatzen ari dira, eta 2024an onartuko da.

# 2. BOLUNTARIOTZAREN EGOERA NAFARROAN

Boluntariotzaren III. Plana egiteko, ez da berariaz diagnostiko bat egin, Plana diseinatzeko metodologiaren zati gisa; aitzitik, Boluntariotzaren II. Planeko jardueren iturri sekundarioak, azterlanak eta entregagaiak erabili dira, **gako nagusiak identifikatuz** eta horiek baliozkotuz **Planaren kudeatzaileekin nahiz partaidetza prozesuan inplikatutako eragileekin**.

Dokumentu nagusia Nafarroako Boluntariotzari buruzko bigarren azterlana da. Dokumentu horretarako, **hiru inkesta egin ziren**: **boluntariotzako entitateei, biztanleria orokorrari** eta **Nafarroa, Orotan Lagunen** erregistratutako entitateei (gutxi gorabehera 1.300 pertsonari eta hirugarren sektoreko 80 entitateri kontsulta egin zitzaien). Azterlanak indarguneak eta hobetu beharreko arloak identifikatzen ditu. Baina II. Planaren indarraldian beste azterlan tematiko batzuk ere egin dira, eta kontuan hartu dira boluntariotzaren premiak identifikatzeko. Horietako batzuk (enpresa arloko boluntariotza edo boluntariotza korporatiboa; boluntariotza genero ikuspegitik) jarraian azalduko ditugu labur-labur.

Funtsean, **bi tresna erabili dira analisi horien guztien ondorioak laburbiltzeko**: **arazoen zuhaitz bat**, arazo horiei erantzuteko ekintza ildo posibleak identifikatzeko, eta aurreko planaren **AMIA matriz**earen eguneratzea, aldaketa nagusiak baloratzeko.



## 2.1. Nafarroako Boluntariotzari buruzko 2. azterlanaren ondorioak

Indarguneei eta premiei dagokienez, honako alderdi hauek nabarmendu daitezke:

**Indartu beharreko alderdi positiboak:**

■ Konpromisoa eta elkartasuna dira oraindik ere boluntarioen ekintzaren balio eragileak.

■ Boluntariotza tresna bat da trebetasunak eskuratzeko.

■ Lan eremuak askotarikoak dira, eta entitateak boluntariotzako hainbat eremutan egituratzen dira: soziala, babes zibila, soziosanitarioa, hezkuntzakoa, aisialdikoa, kirolekoa, ingurumenekoa, kulturala...

■ Boluntariotza kudeatzen duten erakundeek oso balorazio positiboa dute. Hauek dira: Boluntariotzaren Kontseilua, Departamentuarteko Batzordea eta Mahai Teknikoa.

■ Nafarroako boluntariotza erradiografiatzen dituzten azterlanei esker, boluntariotzaren egoeraren irudi eguneratua dugu.

**Erantzuna behar duten premiak eta zailtasunak:**

■ Boluntarioen adinak gora egin du, eta ez dago belaunaldi erreleborik.

■ Gazteek lotura ahulagoa dute boluntariotzarekin; zehazki, lotura horrek behera egiten du adin tarteetan behera joan ahala.

■ Boluntarioen taldeak asko aldatzen dira gizarte entitateetan, eta horrek entitateen egunerokoa baldintzatzen eta zailtzen du.

■ Lan eta gizarte bizitza bateragarri egiteko zailtasunak direla eta, pertsona askok uzten dute boluntariotza.

## 2.2. Beste azterlan tematiko batzuk

### Boluntariotza Korporatiboari buruzko azterlana

InnovaRSE kudeaketa sistema osatzen duten enpresekin boluntariotza korporatiboari buruzko azterlana egin ondoren, honako ondorio hauek atera dira:

■ Boluntariotza korporatiboak interesa sortzen du enpresetan: zenbat eta gehiago jakin, orduan eta arreta handiagoa jartzen dute boluntariotza sustatzeko.

■ InnovaRSE enpresek zenbait ekimen gauzatu dituzte; batez ere, babesletzak eta kanpainak izan dituzte ardatz, baina boluntariotza korporatiboko planak garatu nahiko lituzkete.

■ Boluntariotza korporatiboak sareak sor ditzake enpresen eta entitateen artean.

### Genero ikuspegitik

Boluntarioen ekintza Nafarroan genero ikuspegitik" azterlanaren arabera, Nafarroan boluntariotzak honako ezaugarri hauek ditu::

■ Alderdi positibo gisa, Nafarroako boluntariotzak ahalmen handia du berdintasun printzipioak bermatzeko bideak finkatzeko. Gainera, zaintzaren etika oso presente dago, eta, neurri handi batean, horri esker pertsonak sartu eta inplikatzen dira entitateetan.

■ Landu beharreko alderdien artean, boluntarioen profila homogeneoa da, eta oso normatiboa da: emakume zuriak dira, ez dute oztopo sentsorial, fisiko, mental edo psikikorik, haien ama hizkuntza gaztelania da, goi mailako ikasketa arautuak dituzte, Iruñean bizi dira, besteren kontura kontratua dute, klase ertainekoak dira...

■ Boluntariotzaren potentzialtasuna ikusezina da Nafarroan, parte hartze politiko eta sozialeko beste modu batzuek baino aintzatespen txikiagoa baitu. Zaintzarekin eta altruismoarekin lotutako balioak nagusi diren espazio bat denez, eremu pribatuaren/ugalketa eremuaren hedapen bat gisa ikusten da, eta tradizionalki emakumeekin lotu dira eremu horiek. Gainera, azterlan batzuen arabera, Nafarroako boluntariotzak ahalmen handia du kohesiorako eta sareak sortzeko.

## 2.3. AMIA matrizea

El contraste de la Matriz DAFO del periodo anterior, tanto con el equipo gestor como con los agentes en las sesiones de participación –realizado a través de la técnica del semáforo – ha evidenciado la conveniencia de mantener su contenido casi en su totalidad, con algunas ligeras modificaciones. Como se apunta en otro apartado, esto no significa que el II Plan no haya tenido impacto, sino que únicamente se corresponde con el alcance de los objetivos, a largo plazo, y en los que no se puede incidir de manera significativa en un periodo de tiempo tan corto como son dos años.




### AHULEZIAK

- Erregistro gutxi daude datu fidagarriekin
- Boluntariotzaren errealitate kuantitatiboa eta kualitatiboa ez dira ezagutarazten
- Entitateek marketinaren eta komunikazioaren ezagutza eskasa dute
- Entitateak elkartzeko guneen falta dago (azokak, egoitzak...)
- Profil profesionalak behar dira
- Boluntariotzaren bilaketaren eta esparruen ezagutza falta da gizartean
- Premia desberdinak, jarduketa esparru desberdinen arabera
- Definizio falta eta zailtasuna "boluntariotza zer den eta zer ez den" kontzeptuan
- Inprimakiak eta dolumentuak digitalizatu eta beteratu gabe
- Informazio / formazio komun gutxi boluntariotzaren esparru desberdinentzat (orokorra gizartean)
- Parte hartzearen ziurtagiri bateratuak falta dira
- Arduradunen eginkizunen gainkarga boluntariotzako entitateen kudeaketan
- Laguntzekiko eta dirulaguntzekido menpekotasuna
- Boluntarioen hasierako prestakuntzaren kostua altua da, sarritan programetan jarraitzen ez baitute (asko aldatzen dira boluntarioen taldeak)
- Entitateen arteko lankidetza areagotu behar da

### MEHATXUAK

- Gizartearen joera aldatu da (batik bat gasteria)
- Unean uneko kanpainak nahiago izaten dira, denboran luzatzen diren ekintzak baino
- Balio indibidualetarako joera dago
- Konpromiso / atxikipen falta dago
- Gizarte / lan arloko ezegonkortasuna (bestelako lehentasun pertsonalak...)
- Aldaketa asko daude boluntarioen taldeetan, eta entitatearen balioen eta esperientziaren transmisioa galdu egiten da (aldaketen ondorioz)
- Dirulaguntza, laguntza eta kanpainekiko menpekotasuna gero eta handiagoa da
- Ez zaio baliorik ematen doakoari
- Boluntariotzaren erabilera okerra (curriculumean erakusteko, prestakuntza gisa...)
- Kontzeptu desberdinak nahastea, besteak beste, boluntariotza, auzo ekintza, auzolana, eta beste
- Gobernuen konpromiso falta sasoi politikoen arabera
- Diru murrizketak laguntza eta dirulaguntzetan
- Krisiak eta ziurgabetasun egoerak
- Joera aldaketa onlinerako
- Herritarren ezjakintasuna eta desinformazioa

### INDARRAK

- Nafarroa, elkartasun lurraldea
- Interesa dago inplikatutako eragile guztien aldetik
- Herritarren potentzial handia parte hartzeko (ahulezia bat izan daiteke... baina herritarrek parte hartzeko mekanismoa bat da)
- Administrazioren proaktibitatea
- Nafarroa, Orotan Lagun plataforma
- Entitateek arreta taldeak dituzte
- Estatuko entitateek bestelako ikuspegiak eskaintzen dituzte
- Ekarpenak gizarte eta pertsonen garapenako
- Nafarroako gizartearen inplikazioa aktiboa
- Laguntza sostengarria eta sostenitua
- Gizartean sinesgarritasuna duten entitate nafarrak
- Entitateen konpromiso finkoa positibotasunarekin
- Boluntarioen, onuradunen eta administrazio publikoaren balorazio positiboa
- Elkarteen plataformak izatea
- Sektorearen malgutasuna
- Kalitate humanoa (pertsona konprometituak eta balore handiekin)
- Eragileen erantzukizun aktoboa jasangarritasunarekin, GJHekin eta elkartasunarekin
- Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna

### AUKERAK

- Estatu eta foru legeak mesedegarriak
- Boluntariotzak gizarteari egiten dion ekarpenaren ikusgarritasuna handitzea
- Boluntarioen balioa azpimarratzea
- Interesa duten gizarteko eremu eta taldeen ezagutzak batzea
- Ekintza berritzaileak egitea
- Boluntariotzako entitateen eta pertsonen aitortzaren kultura ezartzea
- Entitateen erregistroa digitalizatzea
- Estatuko eta nazioarteko talde eta plataformekin lankidetzan aritzea
- Entitateentzako prestakuntza ibilbideak garatzea
- Boluntariotzaren sentsibilizazioa eta sustapena egiteko jardunbideak denboran iraunaraztea
- Sareko lan koordinatu eta eraginkorraren oinarriak ezartzea
- Marketina eta komunikazioa txertatzea entitateen eguneroko jardunean
- Eragile gehiago inplikatzea (enpresak, sindikatuak, etab.) boluntariotzan
- Onura ofizialen bidetik etor daitezkeen aukerak aztertzea (kredituak konbalidatzea unibertsitateetan, gazte txartela, etab.)
- Boluntariotza jardun eremu berrietara irekitzea: boluntariotza korporatiboa
- Boluntariotza beste gune batzuetara irekitzea: gizarte taldeak, unibertsitateak, eskolak...

## 2.4. Arazoen zuhaitza

- Kudeaketa zailtasunak: entitateen heren batek baino gehiagok ez du kudeaketa planik.
- Prozesuen sistematizazio falta.
- Barneko eta kanpoko komunikazioa hobetzeko lanean jarraitu behar da.

**KUDEAKETA EZ-ERAGINKORRA**

- Nafarroa, Orotan Lagun eta haren zereginak eta zerbitzuak ez ezagutzea.
- Informazioa deszentralizatuta egotea.
- Kudeaketak egitera nora joan behar den ez jakitea.
- Landa arrakala, landa eremura iristeko zailtasunak.

**KOMUNIKAZIO ETA HEDAPEN INSTITUZIONALAREN ERAGINKORTASUNIK EZA**

- Eragin politikorik eza eta ezegonkortasun ekonomikoa.
- Baliabide publikoekiko mendekotasun handia.
- Gobernuen konpromiso falta sasoi politikoen arabera.
- Boluntarioen ia erdiak uste dute gizartearen aintzatespena txikia dela.

**BALIABIDE ETA AINTZATESPEN FALTA**

- Profil profesionalak behar dira.
- Entitateek gutxi dakite marketinaz eta komunikazioaz.

**PROFESIONALIZAZIORIK EZA**

**BOLUNTA**
**NAFAR**

- Entitateen heren batek ez du prestakuntza egiteko baliabide nahikorik.
- 2/3k baino ez dute adierazten sartzeko unean beren rolari buruzko beharrezko prestakuntza jasotzen dutela.
- Prestakuntza jasotzeko interesa galtzen da, boluntarioen gainkarga dela eta.
- Prestakuntza urria entitateetatik kanpo.

**PRESTAKUNTZA FALTA**

**BOLUNTARIOTZARI KALTE EGITEN DIOTEN GIZARTE JOERAK**

- Balio indibidualetarako joera, eta doakoa ez balioestea.
- Nahiago dute kanpaina puntualetan parte hartu, baina ez ekintza iraunkorretan.
- Gizarte eta lan ezegonkortasuna, eta zailtasunak boluntariotza lanarekin eta gizarte bizitzarekin uztartzeko.
- Aintzatespen txikia, politikan eta gizartean parte hartzeko beste modu batzuekin alderatuta.

**ARIOTZA RROAN**

## BOLUNTARIOEI ARRETA EZ EMATEA

• Entitateen % 25ean ez dago boluntarioez arduratzen den pertsonarik.
• Boluntarioei laguntzeko ezintasuna denbora faltagatik, eta hori bereziki garrantzitsua da sartu berrientzat.
• Gazteek balorazio txikiagoa sentitzen dute entitateetan.

## BEHAR ADINA BOLUNTARIORIK EZ IZATEA

• Entitateen % 77k boluntario gehiago behar dituzte, nahiz eta batzuek puntualki behar duten.
• Erdiak baino gehiagok zailtasunak dituzte pertsona berriak erakartzeko.
• Erdiak baino gehiagok ez dute boluntariotza sustatzeko programarik.
• Gero eta aldaketa gehiago boluntarioen taldeetan.
• Boluntariotzako entitateetan ez dago gazterik, ez da ikusten belaunaldi erreleborik dagoenik.

## LANKIDETZARIK EZA

• Entitateen arteko lankidetza areagotu behar da.
• Sareko lana murrizten duten faktoreak honako hauek dira: bilerak egiteko espazio fisikorik ez izatea, entitateek bakoitzaren eremuaren arabera dituzten premia ezberdinak, eta entitateen tamaina ezberdina.
• Sareko lanerako espazioak dira gutxien erabiltzen diren baliabideak.

## EZ DAGO ADOSTASUNIK BOLUNTARIOTZAREN FUNTSARI BURUZ

• Ez dago boluntariotzaren definizio argirik eta zaila da kontzeptua mugatzea.
• Herritarrek boluntariotza eremuak ez ezagutzea.
• Boluntariotzaren eremu eta zereginen balioa nabarmendu beharra.
• Boluntariotzaren errealitate kuantitatiboa eta kualitatiboa gutxitan ezagutarazten dira.

## PARTE HARTZE TXIKIKO GOBERNANTZA

• Entitate askok ez dute gobernantza kudeatzeko protokolorik.
• Pertsonen erdiek baino ez dute parte hartzen erabakiak hartzen. Hainbat boluntariok ez dute parte hartze handiagoa izateko gogorik.

## GENEROA

• Segregazio bertikala: erabakiak hartzeko eta koordinatzeko organoak maskulinizatuta daude.
• Segregazio horizontala: jardueren eta rolen banaketa. Emakumeak gehiago arduratzen dira zaintza eta kudeaketa emozionalarekin lotutako jarduerez gizarte, hezkuntza eta osasun eremuetan.
• Lana eta familia bateragarri ez egitearen ondorioz, emakumeek ibilbide etenagoak eta ahulagoak dituzte, eta zailago dute erabaki eta koordinazio organoetara iristea.
• Intersekzionalitatea: kalteberatasun egoerako emakume boluntario gutxi daude. Boluntario emakume gehienak bertakoak dira, ez dute oztoporik izaten (sentsorialak, fisikoak, mentalak, psikikoak, etab.), goi mailako ikasketak dituzte, Iruñean bizi dira eta klase ertainekoak dira.

# 3. BOLUNTARIOTZAREN III. PLANA EGITEKO METODOLOGIA

**Boluntariotzaren III. Plana** aurreko blokean aipatu den egungo egoeraren azterketaren ondorioetatik abiatzen da, eta egindako azterketetako informazio guztia egituratzen du.

AMIA analisiak eta arazoen zuhaitzak oinarriak ematen dituzte Nafarroako Boluntariotzaren premiak eta, beraz, behar diren erantzunak identifikatzeko .

Lantaldeak tresna horiek erabili zituen jarduketen aurretiazko zerrenda bat egiteko. Jarduketa horiek, ondoren, **kontrastatu, baliozkotu eta aberastu egin dira partaidetza prozesuan,** aurrez aurreko eta online saioen eta galdetegien bidez.

Ondoren, talde kudeatzaileak jarduketak lehenetsi ditu **HANLON metodoaren** bidez, eta orain lehenespen hori baliozkotu egin behar da jendaurreko epean.



## 3.1. Garapen metodologikoa




**DOKUMENTAZIOAREN AZTERKETA**

Nafarroako boluntariotza osatzen duten eragileek emandako informazioa aztertu zen.

**ARAZOEN HIERARKIZAZIOA**

Dokumentazioa aztertu ondoren, arazoak lehenetsi ziren gero partaidetza saioetan lantzeko.

**PARTE HARTZEKO SAIOAK**

Parte hartzeko lau saio egin ziren, bi online eta bi aurrez aurre. Aurrerago zehazten da saio bakoitzaren lan prozesua.

**INKESTAK ENTITATEEI ETA FUNTSEZKO ERAGILEEI**

Gainerako atalak indartzeko asmoz, galdera sorta bat bidali zitzaien entitateei. Gainera, elkarrizketa batzuk egin zaizkie Nafarroako boluntariotzako zenbait eragileri.

## 3.2. Partaidetza prozesua

Lehenik eta behin, azpimarratu behar da 2023ko bigarren seihilekoko partaidetza prozesuak helburu bikoitza izan duela: Boluntariotzaren II. Plana ebaluatzea eta Boluntariotzaren III. Plana eraikitzea..

Parte hartzeko 4 saio antolatu dira, bi fase edo bloketan banatuta. Bloke bakoitzean aurrez aurreko saio bat eta online saio bat egin dira. Egokitzat jo zen online saioak egitea jende gehiagok parte har zezan eta, batez ere, irismen geografikoa handitzeko, prozesua landa ingurunera hurbilduz.

**Parte hartzeko lehenengo bi saioetan** (aurrez aurrekoa eta online) Nafarroako boluntariotzaren egoera kontrastatu zen batez ere, aurrez aipatu diren azterketetatik abiatuta. II. Planean ordura arte egindako jarduketak baloratu ziren, egungo egoeran aldaketak identifikatzeko eta, horren arabera, erabakitzeko azken urteetako dinamikari eustea edo lehentasun berriak sartzea.



# I. ETA II. PARTE HARTZE SAIOAK

## SAIOAREN HELBURUAK

• Nafarroako boluntariotzari buruzko diagnostikoaren kontraste partziala egitea
• Nafarroako Boluntariotzaren II. Planean jasotako helburuak ebaluatzea
• Boluntariotzaren III. Planerako misioa, ikuspegia eta balioak baliozkotzea eta zehaztea

## PARTAIDETZA

• Aurrez aurreko lehen saioan 25 pertsonak parte hartu zuten guztira.
• Online saioan 11 pertsonak hartu zuten parte

## GARAPENA

• Emaitzak lortzeko, denbora lerro moduko ibilbide bat egitea planteatu zen, Boluntariotzaren II. Planaren mugarriak aztertu ahal izateko.
• Boluntariotzaren egoera ebaluatzeko, semaforoaren baliozkotzean sakondu zen. Nafarroako boluntariotzari buruzko azterlanetatik ateratako ondorioak aurkeztu zituen.
• Gainera, Kahoot eta Mentimeter-en dinamikaren bidez, misioa, ikuspegia eta balioak baliozkotu ziren, eta II. Planaren helburuak ebaluatu ziren.

## ONDORIOAK

• Boluntariotzaren III. Planak ikuspegi kontinuista izan behar du, misioa, ikuspegia eta balioak mantenduz.
• Ildo kontinuista berak aurreko planaren ardatzei eusten die: sentsibilizatzea, indartzea, koordinatzea eta informatzea.
• Hausnartu zen beharrezkoa zela bide komunak eraikitzen jarraitzea eta boluntariotza deszentralizatzea landa lurraldera iristeko, haren helburua sarea sortzea baitzen.
• Balorazio dinamika oso positiboa izan zen.



2023ko ekainaren 23an Fuerte el Príncipe Kirol Egoitzaren instalazioetan egindako parte-hartze saioa. Lehenengo saio horretan 25 pertsonak hartu zuten parte.

**Parte hartzeko hurrengo bi saioetan** (aurrez aurrekoa eta online) Nafarroako Boluntariotzaren III. Planerako ekintzak identifikatu ziren. Aurretiazko proposamen bat landu zen, lehenago ere agenteek kontrastatua eta lehenetsia galdetegi espezifiko baten bidez.

## III. ETA IV. PARTE HARTZE SAIOAK

### SAIOAREN HELBURUAK

• Proposatutako jarduketa ildoen kontrastea egitea.
• Kontuan hartu ez diren ekintza ildo berriak identifikatzea
• Boluntariotzaren III. Plana egiteko lan helburuak lehenestea.

### PARTE HARTZEA

• Aurrez aurreko bigarren saioan 18 pertsonak parte hartu zuten guztira.
• Online saioan 22 pertsonak hartu zuten parte.

### GARAPENA

• Emaitzak lortzeko, laborategiko eta termometroko dinamika bat egitea proposatu zen, ekintza berriak sortzeko eta jada proposatutakoak neurtzeko.
• Laborategiko dinamika egiteko, espazio ireki bat planteatzen da lau talde dinamikorekin. Pertsonek iruzkinak egin ditzakete proposatutako ekintzei buruz, eta taldez alda daitezke gainerakoen ekarpenak aberasteko.
• Termometroak proposatutako ekintzen garrantzia neurtzeko balio izan zuen.

### ONDORIOAK

• Ondorioztatu zen saioaren aurretik proposatutako ekintzak behar bezala identifikatu zirela.
• Parte hartu zutenek Boluntariotzaren III. Plan honetan lanean hasteko garrantzitsutzat jotzen zituzten ekintzak lehenetsi ziren.
• Partaidetza saioen balorazioak oso positiboak izan ziren.



## PARTE HARTZEKO BESTE TRESNA BATZUK

Partaidetza saioez gain, **parte hartzeko beste tresna batzuk** ere erabili dira, hala nola arestian aipatutako galdetegiak eta elkarrizketak talde kudeatzaileari, Planaren gobernantza organoei eta beste eragile batzuei; elkarrizketen bidez Boluntariotzaren II. Plana ebaluatu zen nagusiki, baina III. Planaren proposamenak ere kontrastatu ziren.

### INKESTA FUNTSEZKO ERAGILEEI

Online galdetegi bat egin zen entitate gehiagotara iristeko, helburu bikoitzarekin: alde batetik, Boluntariotzaren II. Plana ebaluatzea; bestetik, diagnostiko prozesuan identifikatutako lan ildoak eta ekintzak baloratzea. Laginaren unibertsoa 150 entitatek osatzen zuten. Guztira, 15 erantzun jaso ziren.

### LAN SAIOA MAHAI TEKNIKOAREKIN

Lan saio bat zehaztu zen Boluntariotzaren Mahai Teknikoarekin, helburu bikoitzarekin: alde batetik, II. Planaren ebaluazioaren emaitzak aurreratzea; bestetik, partaidetza saioetatik ateratako ekintzak baliozkotzeko ariketa bat egin zen.




Nafarroako boluntarioen ordezkari talde bat, parte hartzeko bigarren txandan, 2023ko irailaren 19an, abian jarri ziren dinamiketako batean.

# 4. ESTRATEGIAREN HEDAPENA III. EKINTZA PLANA

**Nafarroako Boluntariotzaren III. Planaren** ikuspegi estrategikoak hiru ezaugarri ditu, aurreko bi planen ikaskuntzen ondorioz.

**JARRAITUTASUNA:** Boluntariotzaren II. Plana hasi zenetik oso denbora gutxi igaro da, eta, beraz, aurrerapenak izan arren, erantzun beharreko arazoak eta premiak oso antzekoak dira. Horregatik aurreko plangintzaren misioa, ikuspena, balioak eta helburu estrategikoak mantendu dira, eragile guztien adostasunarekin.

**SINPLIFIKAZIOA:** aurreko egitura konplexua eta nahasgarria zen, maila gurutzatu asko baitzeuden. Horregatik, murriztu egin dira mailak, jarraian azaltzen den bezala. Jarduketa ildoak ere murriztu (multzokatu) dira, eta saiatu da ildo horiek edukiz hornitzen, ekintza zehatzak identifikatuz.

**SENDOTASUNA:** aurreko Planaren indarraldia laburregia zen, eta horregatik ekintza laburrak planteatzen ziren, eta hain laburrak ez zirenak ez dira amaitu. Boluntariotzaren III. Planaren indarraldia luzeagoa da (2024-2027), eta bat dator legegintza zikloarekin, jarduketek beste esparru estrategiko batzuetako lehentasunekin bat egin dezaten.



## 4.1. Boluntariotzaren III. Planaren egitura




Planaren egiturak lau maila ditu: Misioa, ikuspegia eta balioak; Helburu estrategikoak eta jarduketa ardatzak; Jarduketa ildoak; Ekintzak.

**Misioa, ikuspena eta balioak** dira plangintzaren lehen maila, plangintza normatiboarena, non Planaren helburua, itxaropenak eta boluntariotza ulertzeko printzipioak deskribatzen baitira.

**Helburu estrategikoek** Planaren erronka nagusiak eta misioa betetzeko eta ikuspenera hurbiltzeko bete beharrekoak zehazten dituzte, betiere balioen arabera jardunez. Helburu estrategiko bakoitza **jarduketa ardatz** bati dagokio, eta helburua lortzera bideratutako jarduketa ildo guztiak biltzen ditu.

**Jarduketa ildoak** ekintza multzoak dira, eta modu koherentean taldekatzen dira ezaugarrien arabera. **Ekintzak** azken maila dira, *eginen dena* zehazten baitute.

## 4.2. Misioa, ikuspena eta balioak

Misioa, ikuspena eta balioak NAFARROA, OROTAN LAGUNi dagozkio, boluntariotzaren sustapen integralerako Nafarroako Gobernuaren estrategia baita. Aurretik azaldu bezala, aurreko aldikoak mantentzen dira.

### MISIOA

Nafarroan boluntariotza sustatzeko politika integral egonkor, koherente eta eraginkor bat sendotzea, departamentu eta toki entitate guztien baterako gobernu ekintza koordinatu baten bidez. Politika hori zuzenean inplikatutako gizarte eragile guztiekin eratuko da, eta gizarte antolatu, parte hartzaile eta solidario bat bultzatzeko behar diren laguntzak eskainiko ditu.

### IKUSPENA

Nafarroako gizarteak parte hartzean funtsaturiko demokrazia eta gobernantzako eredu aurreratu bat izan dezan lotzea, ezaugarri nagusi gisa, eta administrazio publikoek gidatua izan dadin, baina lankidetza publiko-sozialaren eredu esplizitu bat izan dezan, herritarren parte hartzea eta gizarte zibil antolatuaren egituraketa aitortu, babestu eta sustatuko duena.

### VALORES

Nafarroako boluntariotzaren Foru Legeak ezartzen dituen boluntariotzaren oinarrizko printzipioen arabera, NAFARROA, OROTAN LAGUN estrategiaren helburua da bizikidetza sustatzen laguntzea gizarte demokratiko, ireki, moderno eta parte hartzaile batean, ondoko balio hauetan oinarrituta:

- Konpromiso pertsonala eta librea.
- Doakotasuna.
- Parte hartzea eta elkarte bizitza.
- Elkartasuna.
- Guztien onura.
- Ardura pertsonala eta kolektiboa.
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna.
- Kalitatea eta etengabeko ebaluazioa.
- Autonomia botere publikoetatik.

## 4.3. Helburu estrategikoak: jarduketa ardatzak

Jarduketa ardatzak eta ardatz horiei dagozkien helburu estrategikoak, jarduketa ildoak barne hartzen dituztenak, aurreko aldikoak dira oraingoan ere. Aldaketa bakarra egin da: lehen “Informatzea” izena zuen ardatza orain “Ezagutzea” da, horrela hobeki izendatzen baita garatzen diren ekintza zehatzen edukia.

Gainera, genero ikuspegia zeharka sartu da, 4.7 atalean azaltzen den bezala, eta zeharkako izaera duen ekintza berezi bat sartu da: esparru normatiboa eguneratzea.

| JARDUKETA ARDATZA | HELBURU ESTRATEGIKOA |
| --- | --- |
| SENTSIBILIZATZEA | Nafarroako gizartea boluntariotzaren zentzuaz kontzientziatzea, eta boluntariotzaren balioak eta herritarren partaidetza aktibo eta solidarioaren garrantzia sustatzea |
| INDARTZEA | Boluntariotzako entitateen garapena eta hazkundea erraztea, boluntarioak artatu eta kudeatzeko prozesuak hobetuz |
| KOORDINATZEA | Eragile guztiak koordinatzeko sistema eraginkorra eta iraunkorra garatzea, boluntariotzaren sustapen egonkor, sendo eta koherentea bermatzeko |
| EZAGUTZEA | Hobeki ezagutzea zein den boluntariotzaren egoera Nafarroan eta zein diren arlo horretan diharduten eragileen premiak |

| ZEHARKAKO ARDATZA | ZEHARKAKO HELBURUA |
| --- | --- |
| GENERO IKUSPEGIA | Incorporar de manera transversal una perspectiva inclusiva que garantice el principio de igualdad en todas las actuaciones. |
| ESPARRU NORMATIBO BERRIA | Adaptar el marco normativo de referencia a la nueva realidad del voluntariado en Navarra |

## 4.4. Jarduketa ildoak

### SENTSIBILIZATZEA

**L1.1 – Zabalkundea** Boluntariotzaren eta boluntarioen ekintzaren balioak sustatzea, Nafarroako gizartea sentsibilizatzeko eta erakartzeko.
**L2.2 – Aintzatespena** Boluntarioek eta boluntariotzako entitateek Nafarroan egiten duten lana ikusaraztea, aitortzea eta balioestea.

### INDARTZEA

**L1.1 – Hazkundea** BBoluntarioak erakarri eta fidelizatzeko ekintzak bultzatzea, eta profilen kopurua eta aniztasuna handitzea.
**L2.2 – Prestakuntza** Boluntariotzarekin lotutako zenbait arlotan gaitzeko prestakuntza ekintzak garatzea.
**L2.3 – Jardunbide egokiak** Ezagutzak eta esperientziak partekatzeko ekintzak garatzea, ikaskuntza komuna lortzeko.
**L2.4. – Kudeaketa eraginkorra** Erakundeek laguntza eta aholkularitza ematea, elkarteek kudeaketa eraginkorragoa izan dezaten.
**L2.5 – Lurralde garapena** Landa inguruneari presentzia handiagoa emateko ekintzak garatzea, Nafarroako boluntariotzaren deszentralizazioa sustatuz.

### KOORDINATZEA

**L3.1 – Gobernantza organoak** Nafarroan boluntariotzaren gobernantza eta partaidetza sistema hobetzeko jarduerak garatzea.
**L3.2 – Sareko lana** Sareak sendotzeko eta proiektu eta ekimen komunetan lan egiteko ekintzak garatzea.
**L3.3 – Sinergiak** Beste eragile batzuekin lankidetzan aritzeko gune komunak sortzea, boluntariotzan inplikatzeko asmoz.
**L3.4 – Nafarroa, Orotan Lagun sendotzea** Nafarroa, Orotan Lagun estrategiaren rol dinamizatzailea indartzea, eta baliabideari beste esanahi bat ematea.

### EZAGUTZEA

**L4.1 – Azterlanak** Nafarroako boluntariotzaren egoeraren irudi eguneratua eta integrala lortzeko ekimenak garatzea.
**L4.2 – Entitateen mapa** Informazio iturri primario eguneratuak sortzea, Nafarroako boluntariotzaren errealitateari buruzko datu zehatzagoak izateko.
**L4.3 – Berrikuntza** Aukera berriak sortzeko jarduerak garatzea, esperientzia berritzaileak identifikatuz eta inplementatuz.

**ZEHARKAKO LERROA**

**GENERO IKUSPEGIA**

*Desarrollar acciones dirigidas a incorporar la perspectiva de género en los ejes de actuación, líneas y acciones propuestas para este plan.*

**ZEHARKAKO LERROA**

**ESPARRU NORMATIBO BERRIA**

*Gaur egungo esparru normatibo berrikustea eta Nafarroako boluntariotzaren egungo errealitatea modu fidagarriagoan islatzen duten berrikuntza guztiak sartzea.*

## 4.5. Ekintzen hedapena

**L1.1 - Zabalkundea Boluntariotzaren eta boluntarioen ekintzaren balioak sustatzea, Nafarroako gizartea sentsibilizatzeko eta erakartzeko.**

- E1.1.1. Boluntariotzari buruzko sentsibilizazio kanpaina orokorrak
- E1.1.2. Publiko edo kolektibo espezifikoei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak
- E1.1.3. Programak zabaltzea
- E1.1.4. Jardunaldiak antolatzea boluntariotza sustatzen/kudeatzen duten entitateekin

**L1.2 - Aintzatespena Boluntarioek eta boluntariotzako entitateek Nafarroan egiten duten lana ikusaraztea, aitortzea eta balioestea.**

- E1.2.1. Boluntariotzaren Jardunaldiak edo Boluntariotzaren Eguna aldizka antolatzea
- E1.2.2. Boluntarioen eta entitateen lanaren aintzatespena
- E1.2.3. Egindako jardueren eragina neurtzea eta emaitzak ebaluatzea

**L2.1 - Hazkundea Boluntarioak erakarri eta fidelizatzeko ekintzak bultzatzea, eta profilen kopurua eta aniztasuna handitzea.**

- E2.1.1. Entitateak eta pertsonak harremanetan jartzeko tresna komunak finkatzea
- E2.1.2. Entitateei laguntza ematea boluntarioak erakartzeko eta fidelizatzeko estrategietan
- E2.1.3. Boluntarioaren txartela

**L2.2 - Prestakuntza Boluntariotzarekin lotutako zenbait arlotan gaitzeko prestakuntza ekintzak garatzea.**

- E2.2.1. Prestakuntza premiak aldizka eta sistematikoki identifikatzea
- E2.2.2. Prestakuntza ikastaroen aldizkako eskaintza eguneratua
- E2.2.3. Gidak eta beste material didaktiko batzuk egitea

**L2.3 - Jardunbide egokiak Ezagutzak eta esperientziak partekatzeko ekintzak garatzea, ikaskuntza komuna lortzeko.**

- E2.3.1. Autonomia erkidegoetan arrakasta izan duten esperientziak eta programak identifikatzea eta zabaltzea
- E2.3.2 Boluntariotzako entitateak kudeatzeko jardunbide egokiak identifikatzea eta zabaltzea
- E2.3.3. Beste eremu geografiko batzuetako jardunbide egokiak identifikatzea

**L2.4. - Kudeaketa eraginkorra Erakunde publikoek laguntza eta aholkularitza ematea, entitateek kudeaketa eraginkorragoa izan dezaten**

- E2.4.1. Entitateei laguntza ematea plan estrategikoen prestakuntzan
- E2.4.2. Boluntarioak hartzeko protokoloetarako jarraibideak eta tresna komunak ezartzea
- E2.4.3. Laguntza ematea finantzaketa iturriak bilatzeko estrategietan
- E2.4.4. Laguntza ematea komunikazio estrategietan
- E2.4.5. Laguntza ematea tramiteen kudeaketan eta prozesuen definizioan
- E2.4.6. Kudeaketa ikastaroak entitateetako teknikarientzat

**L2.5 - Lurralde garapena Landa inguruneari presentzia handiagoa emateko ekintzak garatzea, Nafarroako boluntariotzaren deszentralizazioa sustatuz**

- E2.5.1. Akordioak lurralde entitateekin
- E2.5.2. Ekitaldien deszentralizazioa
- E2.5.3. Landa eremuko entitateak eta proiektuak ikusaraztea
- E2.5.4. Landa eremuko boluntariotzaren berezitasunak aztertzea

**L3.1 - Gobernantza organoak Nafarroan boluntariotzaren gobernantza eta partaidetza sistema hobetzeko jarduerak garatzea.**

- E3.1.1. Nafarroako Kontseiluaren, Departamentuarteko Batzordearen eta Boluntariotzaren Mahai Teknikoaren lana etengabe bultzatzea

**L3.2 - Sareko lana Sareak sendotzeko eta proiektu eta ekimen komunetan lan egiteko ekintzak garatzea.**

- E3.2.1. Lankidetzarako espazio fisikoak
- E3.2.2. Topaketa teknikoak, jardunaldiak eta kanalak informazioa trukatzeko
- E3.2.3. Laguntza ematea lankidetza proiektuak garatzeko

**L3.3 - Sinergiak Beste eragile batzuekin lankidetzan aritzeko gune komunak sortzea, boluntariotzan inplikatzeko asmoz.**

- E3.3.1. Sinergiak eta lankidetzarako guneak bilatzea enpresekin
- E3.3.2. Sinergiak eta lankidetzarako guneak bilatzea unibertsitate eta ikastetxeekin
## E3.4.7. Prestakuntza entitateei, boluntarioei eta beste eragile batzuei

| | |
|---|---|
| **ARDATZA / HELBURU ESTRATEGIKOA** | H3 – KOORDINATZEA - Eragile guztiak koordinatzeko sistema eraginkorra eta iraunkorra garatzea, boluntariotzaren sustapen egonkor, sendo eta koherentea bermatzeko. |
| **JARDUKETA ILDOA** | I3.4. – Nafarroa, Orotan Lagun sendotzea |
| **EKINTZA** | E3.4.7. Prestakuntza entitateei, boluntarioei eta beste eragile batzuei |
| **Neurriaren deskribapen xehatua** | Aipatutako eragileentzako prestakuntza antolatzea eta egitea. Eragile horiek boluntarioak, boluntariotzako entitateak, inplikatutako beste eragile batzuk eta gobernantza organoetako kideak dira. |
| **Lotutako ildoak** | Ez dago lotutako ildorik |
| **Kolektibo hartzaileak / inplikatutako eragileak** | Boluntariotzarekin zerikusia duten eragileak |
| **Jarraipenerako adierazleak** | Egindako prestakuntza ekintzen kopurua<br>Bertaratutakoen kopurua prestakuntza ekintzako |
| **Lehentasuna** | Jarduera etengabea |



Prestakuntza Nafarroako 2024-2027 Boluntariotzaren III. Planaren zutabeetako bat da.

### E4.1.1. Nafarroako boluntariotzaren karakterizazio kualitatiboa eta kuantitatiboa aldizka

| | |
|---|---|
| **ARDATZA / HELBURU ESTRATEGIKOA** | H4 – EZAGUTZEA - Hobeki ezagutzea zein den boluntariotza-ren egoera Nafarroan eta zein diren arlo horretan diharduten eragileen premiak. |
| **JARDUKETA ILDOA** | I4.1. – Azterlanak |
| **EKINTZA** | E4.1.1. Nafarroako boluntariotzaren karakterizazio kualitatiboa eta kuantitatiboa zehaztea aldizka |
| **Neurriaren deskribapen xehatua** | Nafarroako boluntariotzaren egoerari buruzko azterlanak egitea aldizka, boluntariotzaren egoerari buruzko azterketa eguneratua eskainiz. Azterlan horiek datu baseetan oinarritu daitezke, bereziki erroldaren analisi kuantitatiboan. |
| **Lotutako ildoak** | Ez dago lotutako ildorik |
| **Kolektibo hartzaileak / inplikatutako eragileak** | Nafarroako gizartea |
| **Jarraipenerako adierazleak** | Azterlanen kopurua |
| **Lehentasuna** | Bigarren mailako lehentasuna |

### E4.1.2. Diagnostikoak eta azterlan tematikoak egitea eremu espezifikoei buruz

| | |
|---|---|
| **ARDATZA / HELBURU ESTRATEGIKOA** | H4 – EZAGUTZEA - Hobeki ezagutzea zein den boluntariotza-ren egoera Nafarroan eta zein diren arlo horretan diharduten eragileen premiak. |
| **JARDUKETA ILDOA** | I4.1. – Azterlanak |
| **EKINTZA** | E4.1.2. Diagnostikoak eta azterlan tematikoak egitea eremu espezifikoei buruz |
| **Neurriaren deskribapen xehatua** | Zenbait azterlan tematiko egitea, Nafarroako boluntariotzaren eremu jakin batzuk sakonkiago aztertu behar direnean. |
| **Lotutako ildoak** | Ez dago lotutako ildorik |
| **Kolektibo hartzaileak / inplikatutako eragileak** | Nafarroako gizartea |
| **Jarraipenerako adierazleak** | Azterlanen kopurua |
| **Lehentasuna** | Bigarren mailako lehentasuna |

## E4.2.1. Errolda eguneratzea eta digitalizatzea

| | |
|---|---|
| **ARDATZA / HELBURU ESTRATEGIKOA** | H4 – EZAGUTZEA - Hobeki ezagutzea zein den boluntariotzaren egoera Nafarroan eta zein diren arlo horretan diharduten eragileen premiak. |
| **JARDUKETA ILDOA** | I4.2. – Entitateen mapa |
| **EKINTZA** | E4.2.1. Errolda eguneratzea eta digitalizatzea |
| **Neurriaren deskribapen xehatua** | Errolda digitalizatzea eta aldian behin eguneratzea, Nafarroan boluntariotza praktikak egiten dituzten pertsonen kopurua eta profila ezagutzeko. |
| **Lotutako ildoak** | Ez dago lotutako ildorik |
| **Kolektibo hartzaileak / inplikatutako eragileak** | Nafarroako gizartea |
| **Jarraipenerako adierazleak** | |
| **Lehentasuna** | Jarduera etengabea |

## E4.2.2. Entitateen mapa etengabe eguneratzea

| | |
|---|---|
| **ARDATZA / HELBURU ESTRATEGIKOA** | H4 – EZAGUTZEA - Hobeki ezagutzea zein den boluntariotzaren egoera Nafarroan eta zein diren arlo horretan diharduten eragileen premiak. |
| **JARDUKETA ILDOA** | I4.2. – Entitateen mapa |
| **EKINTZA** | E4.2.2. Entitateen mapa etengabe eguneratzea |
| **Neurriaren deskribapen xehatua** | Mapaketa bat egitea eta etengabe eguneratzea Nafarroako boluntariotzako entitate guztiak erakusteko eta Foru Komunitateko boluntariotzaren ezagutarazteko. |
| **Lotutako ildoak** | Ez dago lotutako ildorik |
| **Kolektibo hartzaileak / inplikatutako eragileak** | Nafarroako gizartea |
| **Jarraipenerako adierazleak** | |
| **Lehentasuna** | Jarduera etengabea |

### E4.2.3. Datuak ustiatzea eta berrerabiltzea

| | |
|---|---|
| **ARDATZA / HELBURU ESTRATEGIKOA** | H4 – EZAGUTZEA - Hobeki ezagutzea zein den boluntariotza-ren egoera Nafarroan eta zein diren arlo horretan diharduten eragileen premiak. |
| **JARDUKETA ILDOA** | I4.2. – Entitateen mapa |
| **EKINTZA** | E4.2.3. Erroldatik eta mapatik lortzen den informazioa ustiat-zea eta eskuragarri jartzea, datuen gardentasuna eta berre-rabilpena bultzatzeko |
| **Neurriaren deskribapen xehatua** | Erroldako eta entitateen mapako informazioa argitaratzea, edonork erabili eta ustiatu dezan, datuen gardentasuna eta berrerabilera ahalbidetzeko. |
| **Lotutako ildoak** | Ez dago lotutako ildorik |
| **Kolektibo hartzaileak / inplikatutako eragileak** | Nafarroako gizartea |
| **Jarraipenerako adierazleak** | Errolda argitaratzea<br>Entitateen mapa argitaratzea |
| **Lehentasuna** | Bigarren mailako lehentasuna |

### E4.3.1. Boluntariotzan joera berriak identifikatzea

| | |
|---|---|
| **ARDATZA / HELBURU ESTRATEGIKOA** | H4 – EZAGUTZEA - Hobeki ezagutzea zein den boluntariotza-ren egoera Nafarroan eta zein diren arlo horretan diharduten eragileen premiak. |
| **JARDUKETA ILDOA** | I4.3. – Berrikuntza |
| **EKINTZA** | E4.3.1. Boluntariotzan joera berriak identifikatzea |
| **Neurriaren deskribapen xehatua** | Autonomia erkidegoan, estatuan eta nazioartean sortzen di-ren joerak eta jardunbide egokiak identifikatzea eta bilatzea, aztertzeko Nafarroako boluntariotzan inplementa daitezkeen. |
| **Lotutako ildoak** | Ez dago lotutako ildorik |
| **Kolektibo hartzaileak / inplikatutako eragileak** | Boluntariotzako entitateak |
| **Jarraipenerako adierazleak** | Identifikatutako joeren kopurua |
| **Identifikatutako jardunbide egokien kopurua** | Acción prioritaria |
| **Lehentasuna** | Lehentasunezko ekintza |

## E4.3.2. Bideragarritasun azterketa entitateetako boluntariotza ekintza berrietarako

| | |
|---|---|
| **ARDATZA / HELBURU ESTRATEGIKOA** | H4 – EZAGUTZEA - Hobeki ezagutzea zein den boluntariotzaren egoera Nafarroan eta zein diren arlo horretan dihardunten eragileen premiak. |
| **JARDUKETA ILDOA** | I4.3. – Berrikuntza |
| **EKINTZA** | E4.3.2. Bideragarritasun azterketa entitateetako boluntariotza ekintza berrietarako |
| **Neurriaren deskribapen xehatua** | Bideragarritasuna aztertzea gaur egun Nafarroan ohikoak ez diren boluntariotza praktika berriak (online boluntariotza, adibidez) inplementatu edo sustatzeko. Azterlan horiek zenbait entitaterekin egindako proiektu pilotuen bidez egin daitezke. |
| **Lotutako ildoak** | Ez dago lotutako ildorik |
| **Kolektibo hartzaileak / inplikatutako eragileak** | Boluntariotzako entitateak |
| **Jarraipenerako adierazleak** | Azterlanen kopurua |
| **Lehentasuna** | Bigarren mailako lehentasuna |

## E4.3.3. Belaunaldien arteko topaketak egitea

| | |
|---|---|
| **ARDATZA / HELBURU ESTRATEGIKOA** | H4 – EZAGUTZEA - Hobeki ezagutzea zein den boluntariotzaren egoera Nafarroan eta zein diren arlo horretan dihardunten eragileen premiak. |
| **JARDUKETA ILDOA** | I4.3. – Berrikuntza |
| **EKINTZA** | E4.3.3. Belaunaldien arteko topaketak egitea |
| **Neurriaren deskribapen xehatua** | Adin guztietako boluntarioen topaketak antolatzea, bestearen ezagutzekin, esperientziekin eta motibazioekin indartzeko. |
| **Lotutako ildoak** | I2.5. Sareko lana |
| **Kolektibo hartzaileak / inplikatutako eragileak** | Boluntarioak |
| **Jarraipenerako adierazleak** | Egindako topaketen kopurua |
| **Bertaratutakoen kopurua topaketako** | Prioridad secundaria |
| **Lehentasuna** | Bigarren mailako lehentasuna |

## 4.7. Genero ikuspegia txertatzea

Boluntariotzaren III. Plana kontinuista da alderdi horretan ere; II. Planean genero ikuspegia zeharkako ardatz gisa txertatu zen, berdintasun printzipioak bermatzeko.

Proposatutako jarduketetan ikuspegi inklusiboa txertatu da zeharka; hala ere, bereizita jasotzen dira dokumentuan, ikusgarritasun emateko eta ekintza nagusiak biltzeko.

Bestalde, proposamenek Estatuko eta autonomia erkidegoetako legeek genero berdintasunaren arloan ezarritako jarraibideak betetzen dituzte; ondoko irudian laburbiltzen dira jarraibideak.

# LEGE ESPARRUA

5 IGUALDAD DE GÉNERO

**2030 AGENDA**

5. helburua: generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea

**3/2007 LEGE ORGANIKOA, MARTXOAREN 22KOA, GIZONEN ETA EMAKUMEEN BERDINTASUN ERAGINGARRIRAKO**

Administrazio publikoen jardueretan berdintasun printzipioa zeharka txertatzeko betebeharra jasotzen du.

**10/2022 LEGE ORGANIKOA, IRAILAREN 6KOA, SEXU ASKATASUNAREN BERME INTEGRALARI BURUZKOA**

Haren xedea da sexu askatasunerako eskubidearen babes osoa bermatzea eta sexu indarkeria guztien indarkeria desagerraraztea.
Legearen xedea da politika eraginkor, global eta koordinatuak hartzea eta abian jartzea, sexu indarkeriaren modu guztien aurrean erantzun integral espezializatua bermatzeko.

**17/2019 FORU LEGEA, APIRILAREN 4KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKOA**

13. artikuluak jasotzen du Nafarroako administrazio publikoek zeharka integratu beharko dutela emakumeen eta gizonen berdintasunerako eskubidea beren politika guztietan.

**14/2015 FORU LEGEA, APIRILAREN 10EKOA, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARI AURRE EGITEKOA**

Bertan, emakumeen eta gizonen aurkako indarkeriaren adierazpenekin lotutako gaiak jasotzen dira.
6. artikuluak zehazten du emakumeen giza eskubideak errespetatu, babestu eta sustatzera bideratuko dela generoak eragindako emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko jardun instituzional eta profesionala.

Jarraian azalduko diren neurrietan eta, zehazki, atal honetan, helburua da genero arrazoiengatik edo estereotipoetan eta roletan oinarritutako desberdinkeriak arintzea. Gainera, boluntariotza berdinzaleagoa eta anitzagoa lortzeko oinarriak ezarri nahi dira.



Genero-ikuspegia Boluntariotzaren III. Planaren zeharkako ardatzetako bat da.

## G1. Genero ikuspegia eta ikuspegi intersekzionala txertatzea

| | |
|---|---|
| **ARDATZA / ZEHARKAKO HELBURUA** | Genero ikuspegia - Jarduera guztietan ikuspegi inklusiboa zeharka txertatzea berdintasun printzipioa bermatzeko. |
| **ZEHARKAKO ILDOA** | Genero ikuspegia |
| **EKINTZA** | G1. Genero ikuspegia eta ikuspegi intersekzionala txertatzea |
| **Neurriaren deskribapen xehatua** | Genero ikuspegia eta ikuspegi intersekzionala txertatzea Nafarroako boluntariotzaren arloetako ekintzetan, proposatutako ardatzak abiapuntutzat hartuta: sentsibilizatzea, indartzea, koordinatzea eta ezagutzea. |
| **Lotutako ildoak** | I1.1. Zabalkundea |
| **Kolektibo hartzaileak / inplikatutako eragileak** | Nafarroako gizartea |
| **Jarraipenerako adierazleak** | Genero ikuspegia duten jarduketen ehunekoa |

## G2. Boluntarioen eta egindako lanaren balioa nabarmentzea genero ikuspegitik

| | |
|---|---|
| **ARDATZA / ZEHARKAKO HELBURUA** | Genero ikuspegia - Jarduera guztietan ikuspegi inklusiboa zeharka txertatzea berdintasun printzipioa bermatzeko. |
| **ZEHARKAKO ILDOA** | Genero ikuspegia |
| **EKINTZA** | G2. Boluntarioen eta egindako lanaren balioa nabarmentzea genero ikuspegitik. |
| **Neurriaren deskribapen xehatua** | Genero ikuspegia txertatzea boluntarioei eta entitateen lanari balioa ematean; hau da, zaintza lanari balioa ematea entitateak osatzen dituzten figuren bitartez. |
| **Lotutako ildoak** | I1.2. Aintzatespena |
| **Kolektibo hartzaileak / inplikatutako eragileak** | Gizartea, oro har<br>Entitateak |
| **Jarraipenerako adierazleak** | |

## G3. Erreferenteak sortzea boluntariotzako entitateetan

| | |
|---|---|
| **ARDATZA / ZEHARKAKO HELBURUA** | Genero ikuspegia - Jarduera guztietan ikuspegi inklusiboa zeharka txertatzea berdintasun printzipioa bermatzeko. |
| **ZEHARKAKO ILDOA** | Genero ikuspegia |
| **EKINTZA** | G3. Erreferenteak sortzea boluntariotzako entitateetan |
| **Neurriaren deskribapen xehatua** | Erreferenteak sortzea boluntariotzaren eremu guztietan egindako lana ikusarazteko eta berdintasun printzipioak bermatzeko. |
| **Lotutako ildoak** | I1.2. Aintzatespena |
| **Kolektibo hartzaileak / inplikatutako eragileak** | Nafarroako gizartea |
| **Jarraipenerako adierazleak** | |

## G4. Berdintasun planak bultzatzea

| | |
|---|---|
| **ARDATZA / ZEHARKAKO HELBURUA** | Genero ikuspegia - Jarduera guztietan ikuspegi inklusiboa zeharka txertatzea berdintasun printzipioa bermatzeko. |
| **ZEHARKAKO ILDOA** | Genero ikuspegia |
| **EKINTZA** | G4. Berdintasun planak bultzatzea |
| **Neurriaren deskribapen xehatua** | Berdintasun diagnostikoak eta planak sustatzea, Nafarroako boluntariotzako entitateetan berdintasun printzipioak ezagutu, hobetu eta bermatzeko. |
| **Lotutako ildoak** | I2.4 Kudeaketa eraginkorra |
| **Kolektibo hartzaileak / inplikatutako eragileak** | Entitateak |
| **Jarraipenerako adierazleak** | Laguntza jaso duten berdintasun planen kopurua |

## G5. Berdintasunaren arloko prestakuntza

| | |
|---|---|
| **ARDATZA / ZEHARKAKO HELBURUA** | Genero ikuspegia - Jarduera guztietan ikuspegi inklusiboa zeharka txertatzea berdintasun printzipioa bermatzeko. |
| **ZEHARKAKO ILDOA** | Genero ikuspegia |
| **EKINTZA** | G5. Berdintasunaren arloko prestakuntza |
| **Neurriaren deskribapen xehatua** | Genero berdintasunaren arloko prestakuntza espezifikoa ematea, Nafarroako boluntariotzako eragileak sentsibilizatzeko. |
| **Lotutako ildoak** | I2.2. Prestakuntza |
| **Kolektibo hartzaileak / inplikatutako eragileak** | Boluntariotzako entitateak<br>Boluntarioak |
| **Jarraipenerako adierazleak** | Laguntza jaso duten prestakuntza ekintzen kopurua<br>Prestakuntza jaso dutenen kopurua |

## G6. Lankidetza espazio berriak sortzea

| | |
|---|---|
| **ARDATZA / ZEHARKAKO HELBURUA** | Genero ikuspegia - Jarduera guztietan ikuspegi inklusiboa zeharka txertatzea berdintasun printzipioa bermatzeko. |
| **ZEHARKAKO ILDOA** | Genero ikuspegia |
| **EKINTZA** | G6. Lankidetza espazio berriak sortzea |
| **Neurriaren deskribapen xehatua** | Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin (NABI) lan espazioak sortzea, genero ikuspegia sustatzeko boluntariotzarekin lotutako entitate eta erakundeetan. |
| **Lotutako ildoak** | I3.3. Sinergiak |
| **Kolektibo hartzaileak / inplikatutako eragileak** | Entitateak |
| **Jarraipenerako adierazleak** | NABIrekin egindako ekintzen kopurua |

## G7. Ahalduntze feministarako tailerrak

| | |
|---|---|
| **ARDATZA / ZEHARKAKO HELBURUA** | Genero ikuspegia - Jarduera guztietan ikuspegi inklusiboa zeharka txertatzea berdintasun printzipioa bermatzeko. |
| **ZEHARKAKO ILDOA** | Genero ikuspegia |
| **EKINTZA** | G7. Ahalduntze feministarako tailerrak. |
| **Neurriaren deskribapen xehatua** | Ahalduntze feministarako espazioak sustatzea, boluntariotzako entitateetako emakumeei (langileei zein boluntarioei) zuzendutako tailerren bidez. |
| **Lotutako ildoak** | I2.2. Prestakuntza |
| **Kolektibo hartzaileak / inplikatutako eragileak** | Boluntariotzako entitateak<br>Boluntarioak |
| **Jarraipenerako adierazleak** | Egindako tailerren kopurua<br>Bertaratutakoen kopurua |

## G8. Maskulinitate berriei buruzko tailerrak

| | |
|---|---|
| **ARDATZA / ZEHARKAKO HELBURUA** | Genero ikuspegia - Jarduera guztietan ikuspegi inklusiboa zeharka txertatzea berdintasun printzipioa bermatzeko. |
| **ZEHARKAKO ILDOA** | Genero ikuspegia |
| **EKINTZA** | G8. Maskulinitate berriei buruzko tailerrak. |
| **Neurriaren deskribapen xehatua** | Maskulinitate berdinzale berriei buruzko tailerrak sustatzea, entitateetako kide diren gizonei (langileei zein boluntarioei) zuzenduak |
| **Lotutako ildoak** | I2.2. Prestakuntza |
| **Kolektibo hartzaileak / inplikatutako eragileak** | Boluntariotzako entitateak<br>Boluntarioak |
| **Jarraipenerako adierazleak** | Egindako tailerren kopurua<br>Bertaratutakoen kopurua |

### G9. Genero ikuspegia kontuan hartzen duten azterlanak egitea

| | |
|---|---|
| **ARDATZA / ZEHARKAKO HELBURUA** | Genero ikuspegia - Jarduera guztietan ikuspegi inklusiboa zeharka txertatzea berdintasun printzipioa bermatzeko. |
| **ZEHARKAKO ILDOA** | Genero ikuspegia |
| **EKINTZA** | G9. Genero ikuspegia kontuan hartzen duten azterlanak egitea. |
| **Neurriaren deskribapen xehatua** | Genero ikuspegia duten azterlanak egitea, Nafarroan boluntariotzaren egoera kualitatiboki eta kuantitatiboki erradiografiatzeko |
| **Lotutako ildoak** | I4.1. Azterlanak |
| **Kolektibo hartzaileak / inplikatutako eragileak** | Nafarroako gizartea<br>Boluntariotzako entitateak |
| **Jarraipenerako adierazleak** | Egindako azterlanen kopurua |

## 4.8. Esparru normatibo berria

Sarreran esan bezala, Boluntariotzari buruzko Nafarroako Legea, egungo Planeko proposamenak gidatu dituen erreferentzia izan arren, 1998tik dago indarrean, eta, beraz, berrikusi eta eguneratu egin behar da, Nafarroako boluntariotzaren egungo errealitateari, premiei eta potentzialtasunei hobeki erantzuteko.

Hori dela eta, ekintza berezi bat proposatu da, ez delako berez sartzen jarduketa ardatz bakar batean ere, baizik eta ardatz horiei guztiei euskarria ematen dielako –zeharkako ikuspegiarekin– eta esku hartze puntual bat eskatzen duelako. Esku hartze hori abian jarri ondoren, ez da berriro beharrezkoa izanen epe labur eta ertainean.

### N1. Nafarroako Boluntariotzari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea berrikustea eta eguneratzea

| | |
|---|---|
| **ARDATZA / ZEHARKAKO HELBURUA** | Erreferentziazko esparru normatiboa Nafarroako boluntariotzaren errealitate berrira egokitzea |
| **ZEHARKAKO ILDOA** | Esparru normatibo berria |
| **EKINTZA** | N1. Nafarroako Boluntariotzari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea berrikustea eta eguneratzea |
| **Neurriaren deskribapen xehatua** | Nafarroan indarrean dagoen Boluntariotzari buruzko Legea eguneratzea, boluntariotzaren gaur egungo ezaugarriei lotutako elementu berritzaileak sar ditzan eta Nafarroako boluntariotzako entitateen premiei eta errealitateei modu fidagarriagoan erantzun diezaien |
| **Lotutako ildoak** | Denak |
| **Kolektibo hartzaileak / inplikatutako eragileak** | Nafarroako gizartea<br>Boluntariotzako entitateak |
| **Jarraipenerako adierazleak** | Boluntariotzari buruzko Nafarroako Lege berria (onetsia) |

# 5

# BOLUNTARIOTZAREN III. PLANAREN GOBERNANTZA



## 5.1. Funtsezko eragileak eta gobernantza organoak

Boluntariotzaren Estrategia eta haren Ekintza Planak sustatzeko, lantalde tekniko bat sortu zen, **Boluntariotzaren Departamentuarteko Batzordea**ren funtzioen inplementazioa eta **Nafarroako Boluntariotzaren Kontseilua**ren dinamizazioa ziurtatzeko. Horrela sortu zen 2019an **Mahai Teknikoa, Boluntariotzaren Informazio eta Koordinazio Gunea**ren lana orientatzen duena. Egitura horrek erakutsi du eraginkorra dela Nafarroan boluntariotza sustatzeko lanean, oro har, eta, Boluntariotzaren Plana inplementatzeko eta kudeatzeko lanean, bereziki.

III. Planari begira, ahalik eta partaidetza altuena bermatu nahi da, eta horrek, gobernantzari dagokionez, berekin dakar organo horien partaidetza are handiagoa izatea eta Nafarroako boluntariotzaren sarea osatzen duten gainerako funtsezko eragileak eta interes taldeak sartzea.

Jarraian, Ekintza Plan honetan inplikatutako eragileak ageri dira. Horrela, III. Planean eta erabakiak hartzean duten "inplikazio maila" islatu nahi da, horrek planaren izaera parte hartzailea kaltetu gabe.

### ORGANO SUSTATZAILEAK

**Nafarroako Gobernua - Lehendakaritzako, Gobernu Irekiko eta Nafarroako Parlamentuarekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusia**
Parte hartzeko organoa da, aholku emailea, boluntariotzan dabiltzan gizarte eragileen topaketarako, aholkularitzarako eta kontsultarako. Planaren atzean dauden eragile guztiak koordinatzen ditu, planaren garapen egokia bermatzeko.

**NASERTIC**
Erakunde instrumentala, boluntariotzan parte hartzen duten eragile guztiak koordinatzen laguntzen duena eta Nafarroako boluntariotzako entitateei laguntza ematen diena. Boluntariotzaren Planetako ekintzak bultzatzearen atzean ere badago.

### GOBERNANTZA ORGANOAK

**Nafarroako Boluntariotzaren Kontseilua**
Parte hartzeko organoa da, aholku emailea, boluntariotzan dabiltzan gizarte eragileen topaketarako, aholkularitzarako eta kontsultarako. Besteak beste, boluntariotza sustatzeko neurrien arloko proposamenak aztertzen eta aurkezten ditu.

**Boluntariotzaren Mahai Teknikoa**
Boluntariotzaren Departamentuarteko Batzordearen mendeko organoa da, eta, gainera, lotura estua du Nafarroako Boluntariotzaren Kontseiluarekin. Zenbait lan arlo bultzatzen dituzten Administrazio Publikoko langileek osatzen dute.

**Boluntariotzaren Departamentuarteko Batzordea**
Boluntariotzaren arloan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko departamentuen artean koordinazio teknikoa egiteko organoa. Boluntariotza sustatzeko politika integrala ezartzen du, eta, horretarako, departamentuarteko koordinazioa bermatzen du.

### FUNTSEZKO BESTE ERAGILE BATZUK

**Boluntariotzaren Informazio eta Koordinazio Gunea**
Planaren jarduketa batzuk kudeatzen dituen baliabide bat da, eta erreferentziazko gune bihurtu nahi du, inplikatutako eragileen arteko koordinazioa eta harremana bultzatzeko. Zerbitzu nagusietako bat Nafarroa, Orotan Lagun web plataforma da; haren bidez, harremanetan jartzen dira boluntariotzako entitateak, elkarteak, osasun zentroak eta toki erakundeak boluntario izan nahi dutenekin.

**Boluntariotzako entitateak**
Eragile multzo hori III. Planaren onuradun nagusietako bat da, eta eragin positiboa bermatzeko, ezinbestekoa da horiek kontuan hartzea Planaren fase guztietan, diseinatzen direnetik inplementatzen diren arte eta, jakina, ebaluatzen diren arte.

**Beste interes talde batzuk**

- Administrazio publikoak eta toki erakundeak
- Enpresak
- Entitate sustatzaileak, finantzatzaile potentzialak eta babesleak
- Ikastetxeak eta unibertsitateak
- Boluntarioak
- Herritar gazteak
- Nafarroako gizartea

## 5.2. Jarraipen eta ebaluazio esparrua

Planaren jarraipena eta ebaluazioa funtsezko elementua da, eta ikuspegi bikoitza du: kontuak ematea eta emaitzak eta eraginak neurtzea. Jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak Planaren sorreran edo diseinuan bertan egituratzeak lagundu egiten du egin beharreko jarduerak eta horien helburua argitzen.

Lan horren barruan sartzen da Planaren garapena etengabe monitorizatzea urte anitzeko aldian 2027an amaitu arte (**jarraipena**), eta garapenaren une garrantzitsuenetan lortutako emaitzak baloratzea: bidearen erdian (**tarteko ebaluazioa**) eta amaieran (**amaierako ebaluazioa**).

Jarraipenari eta ebaluazioari esker, Planak aurrera nola egiten duen jakin daiteke, bai ekintzak betetzeari dagokionez, bai epe ertain eta luzerako helburuak lortzeari dagokionez.

### Kontuak ematera bideratutako jarraipena

Azken bi urteetan egin den bezala, ekintzen egoeraren jarraipena eginen da **sei hilean behin**, gauzatutako ekintzen eta partzialki gauzatutako ekintzen **kontuak emateko fitxen** bidez.

Aldizkako dokumentu horiek publikoki zabalduko dira, III. Planaren aurrerapenak ezagutarazteko eta edozein pertsonak edo entitatek Ekintza Plan honetan ezarritako konpromisoen egoeraren berri izateko aukera bermatzeko. Zeregin horri modu proaktiboan ekin behar zaio, boluntariotzaren sarea osatzen duten eragile guztiek publikoki zabaldutakoa jasoko dutela bermatzeko, prozesu horretan duten partaidetza handiagoa izan dadin.

Jarraipena kontuak aldizka ematera bideratuta badago ere, kudeaketa taldearentzat interes handiko datuak ere ematen ditu, gauzatze erritmoa baloratuz eta desbideratzeak identifikatuz, gero zuzentzeko.

Jarraipen sistema, funtsean, ekintza bakoitzari dagokion fitxan lotutako **adierazleez** elikatzen da (ikus 4.5 atala/blokea: Ekintza fitxak). Datu horiek dagokion **aginte koadroan** etengabe eguneratuz eta ustiatuz, aipatutako fitxak sei hilean behin egiten ahalko dira. Nolanahi ere, garrantzitsua da ulertzea adierazle sistemak ikuspegi irekia eta malgua duela, eta komenigarria izan daitekeela aldaketak egitea Planak gauzatu ahala, bestela ez bailitzateke benetan baliagarria izanen etengabeko hobekuntzarako tresna gisa.

### Tarteko eta amaierako ebaluazioak

Plan honek 4 urteko aldia hartzen duenez (2024-2027), bereziki egokitzat jotzen da bi ebaluazio mota egitea:

- **Tarteko ebaluazioa** 2025eko abenduaren inguruan amaitua), une horretara arte lortua baloratzeko eta indarraldiaren bigarren erdia behar bezala bideratzeko. Tarteko ebaluazioan, batez ere, kudeaketa edo prozesua ebaluatzen da.

- **Amaierako ebaluazioa** (2027ko abenduaren inguruan amaitua), Planaren betetze maila orokorra eta haren emaitzak ezagutzeko, Planak hartzen dituen 4 urteetan. Amaierako ebaluazioan, funtsean, emaitzak eta eraginak ebaluatzen dira.

Ebaluazioek argi eta garbi zehaztutako metodologia erabili behar dute, ebaluazio galderen eta egiaztapen irizpideen bidez. Ildo horretan, Nafarroako Boluntariotzaren II. Planaren ebaluazioan aplikatu diren ebaluazio ikuspegia eta ebaluazio matrizea hartu behar ditu gutxieneko erreferentzia gisa. Hala ere, Boluntariotzaren III. Planak proposatzen du bere jarduketa lehentasunak berrikustea, mugarriak zehaztea, eta urte bakoitzerako aurrekontua eta egutegia berriro aztertzea, eta horregatik ebaluazio matrizeak malgua izan behar du, hausnarketa horietatik erator daitezkeen aldaketei arintasunez erantzuteko

Bestalde, nahiz eta talde kudeatzaileak uneoro erakutsi duen ebaluazioaren –eta, bereziki, ikastearen– aldeko jarrera, une honetan ez ditu bitarteko eta amaierako ebaluazioak baliabide propioekin egiteko behar diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak, baina kontuak emateko txostenak egiteaz arduratuko da, aurrez aipatutako aginte taulatik eskuratuko baitu informazioa. Beraz, talde ebaluatzaileak hasieran aipatutako ebaluazio matrizea kontuan hartu behar badu ere, aberasgarriagoa izanen da hasierako matrizea osatzeko proposamenak jasotzea, ondoren jasotzen diren ebaluazio ikuspegitik, ebaluazio irizpideetatik eta ebaluazio galderetatik abiatuta, behin betiko matrizea adostu arte.

*Ebaluazio ikuspegia* [1]

| ORIENTAZIOA | |
|---|---|
| Helburuen araberako ebaluazioa | |
| Ebaluazio esperimentala | |
| Erabakiak hartzean oinarritutako ebaluazioa | |
| Talde kudeatzailearengan oinarritutako ebaluazioa | ✓ |
| Erabiltzaileengan oinarritutako ebaluazioa | |
| Erabilerara bideratutako ebaluazioa | ✓ |
| Ebaluazio parte hartzailea | ✓ |

| EGINKIZUNA | |
|---|---|
| Prestakuntza funtzioa | ✓ |
| Funtzio batutzailea | ✓ |

| EDUKIA | |
|---|---|
| Ebaluagarritasunaren ebaluazioa | |
| Diseinuaren ebaluazioa | ✓ |
| Prozesuaren/kudeaketaren ebaluazioa | |
| Emaitzen ebaluazioa | |
| Eraginen ebaluazioa | |

| AGENTE EBALUATZAILEA | |
|---|---|
| Barne ebaluazioa | |
| Kanpo ebaluazioa | ✓ |
| Ebaluazio mistoa | |

| PLANAREN EGOERA | |
|---|---|
| Ex ante ebaluazioa | |
| Tarteko ebaluazioa | ✓ |
| Amaierako ebaluazioa | ✓ |

1 *Nafarroako Boluntariotzaren II. Planaren amaierako ebaluazioan hartutako ebaluazio ikuspegia – "Planaren egoera" ataleko "Tarteko ebaluazioa" elementua izan ezik. Ikuspegi honen azalpena txosten horretan adierazten da.*

## *Ebaluazio irizpideak eta galderak* [2]

| EBALUAZIO IRIZPIDEA | EBALUAZIO GALDERAK |
|---|---|
| **Adierazgarritasuna** | Behar bezala aztertu al da abiapuntuko egoera? |
| **Egokitasuna** | Helburuak egokiak al dira identifikatutako premia eta arazoentzat? |
| **Barne koherentzia** | Diseinua egokia al da helburuak lortzeko? |
| **Inplementazioa** | Eragile sustatzaileen arteko koordinazioa egokia izan al da?<br>Zenbateraino ahalbidetu du jarraipen sistemak kudeaketa hobetzea?<br>Zenbateraino gauzatu da Plana aurreikusitakoaren arabera?<br>Zenbateraino garatu dira Planean proposatutako ekintzak? |
| **Eraginkortasuna** | Planak bete al ditu proposatutako helburuak? |
| **Emaitza** | Planak hobetu al du hasierako egoera? |
| **Genero berdintasuna** | Nola bultzatu du Planak genero berdintasuna boluntariotzan? |
| **Parte hartzea** | Zenbateraino erraztu da parte hartzea komunikazio garden baten bidez?<br>Zer parte hartze maila izan dute Planean funtsezko eragileek? |

### Ikuspegi parte hartzailea

Parte hartzea balio erantsia da proiektu eta plan estrategikoen edozein ebaluaziotan. Parte hartzea, gainera, Boluntariotzaren III. Planaren oinarrietako bat denez, are garrantzitsuagoa eta ezinbestekoagoa da ebaluazio metodologiak parte hartze osagaia behar bezala integratzea.

Parte hartzeko osagai horrek bi bektore ditu. Alde batetik, beharrezkoa da aurreko atalean deskribatutako gobernantza organoek parte hartzea eta haiei kontuak ematea. Bereziki, Nafarroako Boluntariotza Kontseiluari, boluntariotzaren arloko organo aholku emaile gorena baita, Boluntariotzari buruzko Foru Legean ezarritakoaren arabera; gainera, Nafarroako zenbait boluntariotza entitateren ordezkariak biltzen ditu.

Beste bektorea datza jarraipenean –eta, batez ere, ebaluazioan– zerikusia duten eragile guztiak ahalik eta gehien inplikatzean. Horretarako, funtsezkoa da parte hartze hori gauzatzeko behar diren kanalak gaitzea, zehazki eragile bakoitzari bere profilaren arabera hobeki egokitzen zaizkionak.

Parte hartze hori, lehenik eta behin, Planaren aurrerapena, egindako ekintzak eta emaitzak ezagutzetik abiatu behar da. Erronka da ziurtatzea informazioa interes talde guztietara iristen dela, egiten ari denari buruzko ezagutza zuzena eta nahikoa dutela bermatuz.

### Jarraipenerako eta ebaluaziorako aurrekontua

7. atalean azaltzen den bezala, Boluntariotzaren III. Plana gauzatzeko aurrekontua urtero ezarriko da, ekitaldi bakoitzean zehazten diren lehentasunen arabera. Beraz, tarteko ebaluazioa eta amaierako ebaluazioa egiteko aurrekontua 2025. eta 2027. urteetarako –hurrenez hurren– aurrekontu baliabideen berri izaten den unean zehaztuko da.

2024ko ekitaldiko aurrekontuak (ikus 7. atala) barne hartzen du Nafarroako Zerbitzuak eta Teknologiak (NASERTIC) erakunde instrumentalari egindako kudeaketa mandatua, urte honi dagozkion kontuak emateko txostenak egiteko.

*2 Nafarroako Boluntariotzaren II. Planaren ebaluazio matrizearen laburpena. Matrize osoa ebaluazio txostenean agertzen da eranskin gisa. Matrize horrek kasu bakoitzean kontuan hartu beharreko egiaztapen irizpideak, adierazleak eta informazio iturriak zehazten ditu, ebaluazio irizpideez eta ebaluazio galderez gain. Adierazleei dagokienez, matrizeak, jakina, txosten honetako ekintza fitxetan sartutako adierazleak barne hartzen ditu –aginte taula elikatzeko eta kontuak emateko txostenak egiteko oinarriak baitira–, eta emaitzak baloratzera bideratutako beste adierazle batzuk ere hartzen ditu kontuan (gogobetetzeari, estaldurari, eraginkortasunari eta abarri dagokienez). Azaldu den bezala, II. Plana ebaluatzeko proposatutakoak har daitezke gutxieneko erreferentziatzat, eta emaitzen adierazleen multzoa adostu behar dute talde kudeatzaileak eta ebaluazioaz arduratuko den taldeak.*

6

# KRONOGRAMA

Jardueren **kronograma** bi mailatan ezartzen da:

- **Kronograma orokorra**, planaren aldi osoan gauzatu beharreko mugarri nagusien zirriborroa egiten duena.

- **Urteko kronograma**, urte natural bakoitzaren hasieran argitaratuko dena. Kronograma horrek xehetasun handiagoz azalduko ditu jardueren egutegia, eta behar diren egokitzapenak eginen ditu aurreko urteetako gauzatzearen arabera.



Kronograma orokorra ekintzen lehenespenari lotuta dago, 4.6 ataleko fitxetan jasotakoaren arabera. Lehenespen hori talde kudeatzaileak egiten du, problematikaren tamaina eta larritasunari eta konponbidearen eraginkortasun, egokitasun eta bideragarritasunari erreparatuta. Lehenespenaren emaitza ontzat ematen da jendaurrean jartzeko izapidearen bidez, eta horren ondoren ez da proposatu lehenespen horri eragiten dion aldaketarik.

Horrela, mugarri gisa identifika daitezke lehentasunezko ekintza gisa sailkatu diren ekintzak. Behin mugarriak identifikatuta, modu orekatuan banatu dira –batez ere, lan kargaren intentsitateari eta beharrezko baliabideei dagokienez, baina baita aurreikusitako eraginari dagokionez ere– Boluntariotzaren III. Plana gauzatzeko lau urteetan. Emaitza hurrengo taulan azaltzen da.

| MUGARRIAK | 2024 | 2025 | 2026 | 2027 |
|---|---|---|---|---|
| E1.1.1. Boluntariotzari buruzko sentsibilizazio kanpaina orokorrak | X | X | X | X |
| E1.1.2. Publiko edo kolektibo espezifikoei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak | X | X | X | X |
| E1.1.4. Jardunaldiak antolatzea boluntariotza sustatzen/kudeatzen duten entitateekin | X | X | X | X |
| E1.2.2. Boluntarioen eta entitateen lanaren aintzatespena | X | X | X | X |
| E2.1.2. Entitateei laguntza ematea boluntarioak erakartzeko eta fidelizatzeko estrategietan | X | | | |
| E2.1.3. – Boluntarioaren txartela | X | | | |
| E3.3.1. Enpresekin sinergiak eta lankidetzarako guneak bilatzea | X | | | |
| E4.3.1. Boluntariotzan joera berriak identifikatzea | X | | | |
| E2.4.2. Boluntarioak hartzeko protokoloetarako jarraibideak eta tresna komunak ezartzea | | X | | |
| E3.2.2. Topaketa teknikoak, jardunaldiak eta kanalak informazioa trukatzeko | | X | | |
| E3.3.2. Sinergiak eta lankidetzarako guneak bilatzea unibertsitate eta ikastetxeekin | | X | | |
| E2.3.1. Esperientzia eta programa arrakastatsuak identifikatzea eta zabaltzea | | | X | |
| E2.3.2. Boluntariotzako entitateak kudeatzeko jardunbide egokiak identifikatzea eta zabaltzea | | | X | |
| E2.5.1. Akordioak lurralde entitateekin | | | X | |
| E3.2.3. Laguntza ematea lankidetza proiektuak garatzeko | | | | X |

Kronograma orokor horretatik abiatuta, 2024ko ekitaldirako kronograma xehatua egin da, hurrengo urteetan eginen den bezala. Kronograma xehatuak lehentasunezko ekintzak zein "bigarren mailako lehentasun" gisa sailkatutakoak eta izaera iraunkorra dutenak biltzen ditu. Lehenengo ekitaldirako, 2024rako, kronograma hau proposatzen da:

| EKINTZAK 2024 | E | F | M | A | M | J | J | A | S | O | N | D |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E1.1.1. Boluntariotzari buruzko sentsibilizazio kanpaina orokorrak | | | | ■ | ■ | ■ | | | | | | |
| E1.1.2. Publiko edo kolektibo espezifikoei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak | | | | | | | ■ | ■ | ■ | | | |
| E1.1.3. Programak zabaltzea | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| E1.1.4. Jardunaldiak antolatzea boluntariotza sustatzen/kudeatzen duten entitateekin | ■ | ■ | ■ | | | | | | | ■ | ■ | ■ |
| E1.2.1. Boluntariotzaren Jardunaldi bat edo Boluntariotzaren Egun bat aldizka antolatzea | | | | | | | | | | | ■ | ■ |
| E1.2.2. Boluntarioen eta entitateen lanaren aintzatespena | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | | | | | | |
| E2.1.1. Entitateak eta pertsonak harremanetan jartzeko tresna komunak finkatzea | | | | | | | ■ | ■ | ■ | | | |
| E2.1.2. Entitateei laguntza ematea boluntarioak erakartzeko eta fidelizatzeko estrategietan | | | | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| E2.1.3. Boluntarioaren txartela | | | | | | | | | | ■ | ■ | ■ |
| E2.2.1. Prestakuntza premiak aldizka eta sistematikoki identifikatzea | ■ | ■ | ■ | | | | | | | | | |
| E2.2.2. Prestakuntza ikastaroen aldizkako eskaintza eguneratua | | | | ■ | ■ | ■ | | | | | | |
| E2.4.3. Laguntza ematea finantzaketa iturriak bilatzeko estrategietan | | | | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | | | |
| E3.1.1. Nafarroako Kontseiluaren, Departamentuarteko Batzordearen eta Boluntariotzaren Mahai Teknikoaren lana etengabe bultzatzea | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| E3.3.1. Enpresekin sinergiak eta lankidetzarako guneak bilatzea | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| E3.4.1. Laguntza teknikoa gobernantza organoei | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| E3.4.2. Arreta boluntariotzako entitateei | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| E3.4.3. Arreta boluntarioei | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| E3.4.4. Arreta inplikatutako beste eragile batzuei | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| E3.4.5. Webgunearen eguneraketa | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| E3.4.6. Kanpo komunikazioa eta sare sozialak | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| E3.4.7. Prestakuntza entitateei, boluntarioei eta beste eragile batzuei | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| E4.2.1. Errolda eguneratzea eta digitalizatzea | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| E4.2.2. Entitateen mapa etengabe eguneratzea | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| E4.3.1. Boluntariotzan joera berriak identifikatzea | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| G1. Genero ikuspegia eta ikuspegi intersekzionala zeharka sartzea sentsibilizazio kanpainetan | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| G2. Genero ikuspegia txertatzea boluntarioei eta entitateen lanari balioa ematean: zaintza lanari balioa ematea entitateak osatzen dituzten figuren bitartez | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ | ■ |
| G5. Genero berdintasunaren arloko prestakuntza espezifikoa ematea Nafarroako boluntariotzako eragileei | | | | ■ | ■ | ■ | | | | | | |

# 7

# AURREKONTUA

Boluntariotzaren III. Plana gauzatzeko aurrekontua ere urtero zehaztuko da, urteko egutegian ezarritako lehentasunekin bat etorriz.

**2024ko ekitaldirako aurrekontua 165.000 eurokoa da**. Partida horrekin, Nafarroako Gobernuaren 2024rako Boluntariotzaren Informazio eta Koordinazio Gunearen kudeaketa enkargatzen zaio (Nafarroa, Orotan Lagun) Nafarroako Zerbitzu eta Teknologia (NASERTIC) erakunde instrumentalari, eta 2024rako aurreikusitako ekintzak garatuko dira.



NAFARROAKO BOLUNTARIOTZAREN III. PLANA **2024-2027**

NAFARROA, OROTAN LAGUN
NAVARRA + VOLUNTARIA

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030